

LANA

Lanari azkenera arte lotu zaio Gandiaga. Orduen liturgiarako gorazarreak gaztelaniara aldatzen ari zen azken aldian

EUSKALTZAINA

Euskaltzain urgazle izendatu zuen akademiak 1964an, eta iazko urriar, berriz, euskaltzain ohorezko

ko komentuetan egin zituen apez ikasketak. 1940an frantziskotar sartu, eta 1954an apeztu zen.

Arantzazuko ikastetxean plastika eta euskarako irakasle aritu zen. *Arantzazu*, *Euzko Gogo*, *Egan* eta *Oleri*-n eman zituen argitara bere lehen idazlanak, eta hainbat sari ere irabazi zuen bere poemekin. 1962an eman zuen argitara lehen liburua: *Elorri*. Forma tradizioaletan landuak, izadiari buruzko poema lirikoak dira *Elorri*-koak.

Oteizarekin topo

1974an *Hiru gizon bakarka* plazaratu zuen. Jorge Oteizaren eragina aitorzen zuen beti liburu hartaz mintzatzean Gandiagak. Oteiza Arantzazun ezagutu zuen, eskultorea, laguntzailekin batera, santutegiaren aurrealdeko apostoluak egiten ari zen garaian, eta adiskidetasun handia sortu zen bien artean.

1977an *Uda batez Madril*en poema liburua argitaratu zuen Gandiagak; poesia pertsonal, plastiko eta modernoa landu zuen liburu horretan. 1985ean *Denbora galdu alde* argitaratu zuen, «denbora gaitzeko» aholkatu zion psikiatraren aginduari jarraituz idatzitako testuz osatua. 1986an *Gabon dut Anuntzio*, gabon-kantaz osatutako liburua. 1997an bere azken poema liburua, *Ahositik behartu gabe*; liburuarekin batera, disko bat ere banatu zuen orduan Erein argitaletxeak, eta diskoan Gandiagak bere 57 poema erreztatzen ditu.

1964an euskaltzain urgazle izendatu zuen, eta iazko urriaren 27an euskaltzain ohorezko. Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma eman zion iazko ekitaldian. «Euskal poetak izan daitezke onak, oso onak edo Gandiagak», adierazi zuen orduko hartan Juan Mari Lekuonak.

Euskaltzaindiak eta AEK-k prentsa ohar bana zabaldu zuten atzo, Gandiagaren heriotza dela-eta dolua eta nahigabea adierazi.

IRITZIA

Joxe Azurmendi ■ IDAZLE ETA PENTSALARIA

Naturaren poeta

Izan den eta egin duen guztian, oso pertsonala izan da beti. Poeta eta pertsona. Gorputza mardo, musu energiko beltza. Azal morkotsaren barruan izpiriturik delikatuena.

Pertsona bezala, guk Zegaman «ume irritue» esaten duguna zen. Haur bat. Haur on bat, azkenera. Urduria, estu larria, ezinegona, kontentagaitza bere buruarekin, insegurua, minbera. Horregatixe, batzutan lakarra, batzutan bigun gozoa.

Poesian forma ezberdinak entseiatu

ditu, prosan hala bertsoan eta bertso librean. Fintasan eta goitasun zilartu berri hura, lehenengo, *Elorri*-n. Pitxika, zaitxoka. Beiratilak bezala. *Hiru gizon bakarka*-z gero sotiltasun selektoa, bame hustuka, nasaiaigo. Espresioa, duin zaindua beti. Eskrupuloso. Puntillista. Hizkeraren eta esaera bakoitzaren, askotan hitz bakoitzaren gozamen utzigaitz bat dago haren jarioan, irakurketa etenarazten dizuna, hitz bati, inudi bati, hobeto erreparatzeko. Doi-nua hartzen du paperean hitzak. Kolorea

eta gustoa hartzen du.

Mundu txikiaren eta gauza txikien poeta. Euskaldunaren poeta. Bizitza umilaren poeta. Naturaren poeta. Arantzazu lagun min bat bezala, Euskal Herria bere familia bezala, maite zituen poeta. Bizitzaren adoratzailer. Jainkoan sinestun. Sinesgabeetan sinestun. Arima xalo frantziskotar zabal, paisajearen anaia, argiaren eta lurriaren poeta adiskidea.

Rrako maitatu du, asko sofitu du.

Villasante bezala, Arantzazuk oraindik ematen dakien horietako gizakia izan da, gizon apal santua. Zentzurik hoberean. Eskerrik asko, Arantzazu. Eskerrik asko, Bitoriano.

Gandiagaren «gizatasun handia» nabarmendu dute haren adiskideek

Bete-betean bizi izan zela, eta inguruarekiko leiala izan dela adierazi digute



EGUNKARIA

LAGUNEN LAGUN. Manex Erdozainzi-Etxart eta Bitoriano Gandiaga idazleak, elkarrekin solasean.

Ainhoa Oiarzabal ■ DONOSTIA

Emozioz beterik hitz egin digute Bitoriano Gandiagak gertutik ezagutu zutenek. Lagunen laguna, hutsune handia utzi du adiskideen artean. Gandiagaren lagun min Dionisio Arrutik poetari buruzko «ideiak tropelean» bertzen zaizkiola esan dio EGUNKARIARI. Urte askoan batera bizi izan dira Arantzazun, eta Gandiagak zerbait idazten zuenean, Arrutiren gelara joaten zen: «Zirriborro hauek idatzi ditut, ez daukate balio handirik baina...», esan eta irakurri egiten zizkidan. Gero zakarrontzira botatzen zituen idatziak», adierazi digu Dionisio Arrutik. Horrek, ordea, idatziak makinaz kopiatu eta berari ematen omen zizkion. Baina kopia bat berak gordetzen zuen, «askotan galdu egiten baitzitu lanak». Horren ondotik, «bitxia zen Gandi», esan digu Arrutik, eta artista bat zela. Mendian non idatzirik ez zuenean lurreen idazten omen zuen, «makiltxo batekin», esan du.

Lurra —natura— izan da Bitoriano Gandiagaren maitasun handienetakoa bat. «Ongi zebilenean, goizeko botetan jaiki eta bueltatxo bat egitera itertzen zen», adierazi digu Pello Zabala Arantzazuko fraideak, «eta dena errepara-

tzen zuen, zein basapitxia zebilen, hontzaren bilerak...», gaineratu digu. «Zentzumenen leiho guztiak zeuzkan zabalik» Gandiagak, eta hortik aberastu omen zuen bere barrua. «Ikaragarria zen eguneroko gauzari txikienari, egunari berari, denborari berari nola erreparatzen zion ikustea. Euriarekin, adibidez, gozatu egiten zuen». Azken finean, bizitzarekin erabat lotuta zegoela esan digu Pello Zabalak, «eta bizitzarekin bezala, heriotzarekin. Ez zion inola beldurrik». Orain, Gandiagak hainbeste miresturiko naturak ekartzan die gogora atzo zendu zen idazlea, «hemen inguruko zuhaitzek, loreek...».

Arantzazuko Gandiaga

Arantzazuko inguru Gandiagak itxuraldatu egin duela esan digu Joseba Intxausti idazleak, «bere poesiarekin eta bere pertzepzio eta sentiberatasun berezi horrekin».

Intxaustik azaldu digunez, Arantzazuko santutegia egiten ari zirela, hango artista, idazle eta beste hainbaten lana arretaz jarraitu zuen. Fedea modernotasunaren barruan bizi zuen. Hori dela eta, «hiriko sufrikarioak ezin hobeto» bizi zituela uste du Intxaustik: «Finean, gizonaren sakoneko arazo nagusiekin eta gure herri nahiz hizkuntzaren arazoekin asko arduratzen zen. Horri guztiari buruz diharduten duintasun handiko testuak zor dizkiogu».

Pello Zabaleta idazleak, bestalde, gizon leiala eta umoretsua zela azaldu digu: «Lurraiekiko, jatorriarekiko, fedearreko eta euskararekiko leiala zen, erabat». Zabaletak esan digunez, «lurrezko baitaio» egina zuen Gandiagak, «eta hiltzerakoan lurreen ehorztea nahi zuela esan zidan, ez porlan artean». Idazle eta pertsona sakona zela, bere baitan sartu eta asko

ESANAK

PELLO ZABALA

(Frantziskotarra eta idazlea)

«Bizitzari erabat loturik zegoen, eta, ondorioz, baita heriotzari ere»

JOSEBA INTXAUSTI

(Idazlea)

«Gizakiaren arazo sakonei buruzko duintasun handiko testuak utzi dizkigu»

PELLO ZABALETA

(Idazlea)

«Oso leiala. Jatorriari, lurriari eta fedeari leial zitzaioni»

JUAN SAN MARTIN

(Idazlea)

«Hutsune handia utzi dute Villasantek eta Gandiagak»

perntsatuz jokatzan zuela adierazi digu. «Otzana, umila, tratu gozokoa... Benetako frantziskotarra zen», bukatu du Zabaletak, hunkiturik.

Azkenik, «hark hitz batean adierazten zuen guri liburua oso baten bidez ezin adierazi duguna», azaldu digu Gandiagak ezagutu zuen Arkeolan arkeologia taldeko kide Merte Urteagak. Juan San Martin idazleak, berriz, Villasantek eta Gandiagak Arantzazun utzitako hutsunea azpimarratu digu.